

EIBARTIK ZUBEROARA EUSKALKIETAN BARRENA

KOLDO
ZUAZORI
GORAZARRE

Iñaki Camino
Xabier Artiagoitia
Irantzu Epelde
Koldo Ulibarri (arg.)



eman ta zabal zuzen



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Eibartik Zuberoara
euskalkietan barrena**

Koldo Zuazori gorazarre

Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena

Koldo Zuazori gorazarre

Iñaki CAMINO
Xabier ARTIAGOITIA
Irantzu EPELDE
Koldo ULIBARRI (arg.)

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena : Koldo Zuazori gorazarre / Iñaki Camino ... [et al.] (arg.). – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020]. – 780 p. : gráf., mapas.

Incluye referencias bibliográficas.

D.L.: BI-1139-2020. — ISBN: 978-84-1319-266-6

1. Euskara (Lengua) – Dialectos. 2. Zuazo, Koldo, 1956- . I. Camino, Iñaki, coed.
II. Artiagoitia, Xabier, coed. III. Epelde, Irantzu, coed. IV. Ulibarri, Koldo, coed.

809.169-087



© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-266-6

Depósito legal/Lege gordailua: BI-1139-2020



Aurkibidea

<i>Koldori gorazarre: gizon normalaren sendotasuna</i>	
XABIER ARTIAGOITIA, IÑAKI CAMINO, IRANTZU EPELDE, KOLDO ULIBARRI . . .	11
<i>Koldo Zuazo Zelaieta</i>	
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL (Eibarko alkatea)	13
<i>Hitzaurrea</i>	
JON ZARATE SESMA (UPV/EHUko Euskara Errektoreordea)	15
<i>Koldo Zuazorekin solasean</i>	
XABIER ARTIAGOITIA	17
<i>Koldo Zuazoren ekarria</i>	
IÑAKI CAMINO	23
<i>Koldo Zuazoren argitalpenak</i>	
KOLDO ULIBARRI	29
JOSEBA K. ABAITUA ODRIOSOLA. <i>Periodización dialectal y cronologías de algunos guipuzcoanismos del EHHA</i>	33
BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ. <i>Gipuzkoako euskara zaharre(ta)tik erdialdeko euskarara: isoglosen diakroniaz</i>	57
XABIER ARTIAGOITIA. <i>Nominalizazioak eta Marteko euskara</i>	67
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA. <i>Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera</i>	89
ANE BERRO, ITZIAR ORBEGOZO, BEATRIZ FERNÁNDEZ. <i>Gramatikak dialektologiatik ikasi duenaz, dialektologiak gramatikatik ikas dezakeenaz</i>	115
IÑAKI CAMINO. <i>Haur ttipiendako Akizeko apezpikuak 1740an eginarazi katixima</i>	135
MAITENA DUHALDE DE SERRA. <i>Sara eskualdeko ahoskerari buruzko ohar zenbait</i>	173
ARANTZAZU ELORDIETA. <i>-(t)zen azentuatzen</i>	183
ARIANE ENSUNZA ALDAMIZETXEBARRIA. <i>Busturialdeko euskararen aldakortasuna: «zait»</i>	197
IRANTZU EPELDE, OROITZ JAUREGI, BEÑAT OIHARTZABAL. <i>Lapurditik Zuberoara, hots aldaketaren argitan</i>	211
ANE ERAÑA ARBULU. <i>Jagin aditz laguntzaile ditrantsitiboa aztergai</i>	229

MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGUI. <i>Política lingüística y vitalidad sociolingüística del euskera hoy: la transmisión de la lengua</i>	245
INAKI GAMINDE. <i>Informatzaileen sailkapena fonemen maiztasunaren arabera</i> . .	259
RICARDO GÓMEZ-LÓPEZ, JOSU M. ZULAIKA. <i>Pomier Hiztegiaren datazio arazoez</i> .	277
JOSÉ IGNACIO HUALDE. <i>Euskara Batu Zaharraren eta lehenagoko garaien berreraiketaren gainean: adibide bi</i>	295
ORREAGA IBARRA MURILLO. <i>Gipuzkoako euskaldun gazteen elkarriketak eta whatsapp</i>	319
JOSEBA A. LAKARRA. <i>Berreraiketa zabalduaz eta familia erroiztuetako hitz arroztuak senidetuaz: Banen urruneko hondar batzuk</i>	335
OLATZ LETURIAGA ANGOITIA. <i>Gipuzkoa erdialdeko pluralgileen azterketa</i>	367
JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA. <i>Pirinioko onomastika: Auñamendiren izenaz, Izabarenaz eta beste</i>	403
OIHANA LUJANBIO. <i>Hizkuntza-aldakortasuna euskarari. Nafarroako bi udalerriak emaitzak eta ondorioak</i>	443
JESUS MARI MAKAZAGA. <i>Zirikadak eta Eztenkadak, ahozko hizkera lagunartekoaren ispilu</i>	471
IBON MANTEROLA. <i>Euskararen komunitatearen garapena e5 egitasmoaren bidez</i>	495
JULEN MANTEROLA. <i>Erdi Aroko onomastika eta euskal lexikoaren berreraiketa: Zuazoren sustaiak</i>	511
LUCÍA MASA, GORKA ELORDIETA. <i>Comparación de la entonación de la fala con el castellano, gallego y portugués</i>	535
BEÑAT MUGURUZA, GARBINE BEREZIARTUA. <i>Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azeitiko hiru belaunaldien azterketa</i>	545
ARANTZAZU OZAETA, ENERITZ GARRO, ITZIAR PLAZAOLA. <i>Irakaslearen jardueraren analisis oinarrituriko prestakuntza. Kultura-aldaketa bat ikastetxean</i> . .	565
MANUEL PÉREZ SALDANYA. <i>El prefijo subordinante bait- y sus paralelos en el dominio occitano-catalán</i>	581
ELIXABETE PEREZ GAZTELU, MIREN AZKARATE. <i>Euskara estandarrek bernakularizazio aldian</i>	601
URTZI REGUERO-UGARTE. <i>Euskara nafarrari diakroniatik begira</i>	617
IKER SALABERRI. <i>Euskarazko bihurtarien historia: euskalki zaharrak aztergai</i>	631
PATXI SALABERRI MUÑO. <i>Leizarragaren hitz difficultak (1571). Ohar zenbait</i> . .	645
KOLDO ULIBARRI. <i>J. P. Ulibarriren lan ezezagun bat: Gueure Anra Mariaren Otoize</i>	673
BLANCA URGELL. <i>Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenaz</i>	701
OXEL URIBE-ETXEBARRIA. <i>Debagoieneko euskararen iraganaz gehiago</i>	737
ENEKO ZULOAGA. <i>Bizkai sartaldeko eremu linguistikoez: lexikoa</i>	755
Tabula gratulatoria	777

Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa

Beñat Muguruza
UPV/EHU

Garbiñe Bereziartua
UPV/EHU

Laburpena

Hitanoaren belaunarteko transmisioa aztertzen da lan honetan. Azpeitiko 838 helduk erantzun zioten galde-sortako emaitzek erakusten dute aitak seme-ari oraindik sarri askotan egiten diola hika, baina gero eta gutxiago transmititzen dela gainontzeko harremanetan. Aztertu ditugun hiru belaunaldietan, ikusi dugu hitanoa etxean jaso duten parte-hartzaileek errazago egiten dietela seme-alabei hika, eta eragin hori gehienetan estatistikoki esanguratsua da, hiztunen generoa zeinahi dela ere. Hala ere, generoaren garrantzia beste behin agerian uzten du gure ikerketak, baita etxeko giroan ere: aztertutako konbinazio posible guztietan jasotzen dute semeek hitanoa maizago alabek baino, eta ia kasu guztietan aitek gehiagotan egiten diete hika seme-alabei amek baino. Hitanoaren egungo egoera orokorra hobeto ulertu eta azaltzeko, hizkuntza-transmisioaren ideia tradizionaletik harago joatea proposatzen dugu ondorioetan. Izan ere, hizkuntza-sozializazioa deritzon kontzeptu zabalagoari esker hobeto interpretatu ahal izango ditugu hitanoaren nondik norakoak. Eta etorkizunean ere bizirik iraungo badu, gurasoen goitik beherako transmisioa baino emari jorriagoa beharko du nahitaez.

Hitz gakoak: hizkuntza-tratamenduak, hika, transmisioa, hizkuntza-sozializazioa, generoa.

Abstract

In this study, we focus on the intergenerational transmission of the Basque form of address *hika*. 838 adults from Azpeitia answered a questionnaire and the results show that fathers still speak in *hika* to their sons quite often, but the transmission is less and less usual in the rest of relations. In the three generations we observed we have seen that those who have received *hika* at home tend to use it with their children more frequently, and this effect turns out statistically significant in most cases no matter the speakers' gender. However, in this study the importance of gender becomes evident once again, also in the family context: in all the combinations we analysed, sons receive *hika* more often than daughters do, and nearly in all cases fathers address their children in *hika* more

often that mothers do. To better understand and explain the current situation of *hika*, we suggest that going beyond the traditional idea of language transmission is needed, and we will better interpret the circumstances of *hika* with the wider concept of language socialisation. If *hika* is going survive in the future, it will inexorably need more communicative contexts than parens' top-down transmission.

Keywords: forms of address, *hika*, transmission, language socialisation, gender.

Sarrera

Transmisioari buruz hitz egiten denean, gehienetan, hizkuntza bat belau-naldi batetik bestera helarazteari buruz izaten da. Kasu honetan, hizkuntza bat ez, baizik eta euskararen baitako tratamenduei buruz arituko gara. Hizkuntza-tratamendu ugari izan ditu euskarak bere baitan mendeetan zehar, eta erabilera gorabeheratsua izan dute garaiazen eta eremu geografikoaren arabera. Dena den, egun apenas aritzen den inor berorika —ez bada ironia puntu batekin—, eta oso eremu murriztera eta hitzun kopuru txikira mugatzen dira zuka (alokutiboa) eta xuka egiten dutenak. Euskaraz aritzen direnen artetik gehien-gehienentzat zukako (ez-alokutiboa, edo, zuzenago esanda, eztabada edo neutroa)¹ formak dira ohikoenak eta ez-markatuak. Horrez gain, hitanoa osasuntsu xamar dago Euskal Herriko eremu zenbaitetan. Lan honek hain zuzen lagunarteko tratamendua delakoari erreparatu nahi dio, begi-puntua Azpeitian jarrita. Azpeitiko herritar askok erruz eta erraz darabilte hitanoa, baina ahulguneak ere agerikoak dira; lan honetan, hizkuntza-transmisioari erreparatuko diogu. Transmisioa belau-naldi zaharretik gaztera egite horri dagokionez ere, patroiak aldatzen eta eredu berriak sortzen ari direla ikusiko dugu.

1. Atal teorikoa

Atal teorikoa hiru zatitan egongo da banatuta. Lehenik, hitanoa eta transmisioaz hitz egingo dugu, orain arte egindako lan gutxien argitan. Lehenengo azpiatalean generoaren gaiari ezinbestean helduko badiogu ere, bigarrenan berariaz jardungo dugu emakume eta gizonen arteko hizkuntza-arrakalaren gainean. Azkenik, hizkuntza-sozializazioaren gaia izango dugu hizpide, eta transmisioaren ideia birpentsatzen ahaleginduko gara.

¹ Aurrerantzean zuka hitz egitea diogunean eztabadaka aritzeari edo tratamendu neutroari egingo diogu erreferentzia, egun ematen zaion erabilera kontuan hartuta.

1.1. *Hitanoa eta transmisioa*

Hizkuntza baten, edo, kasu honetan, tratamendu jakin baten bizirau-pena berma dadin, gurasoek seme-alabei hala egitea ia ezinbestekotzat jo izan da. Egon litezkeen beste transmisio-kanal batzuk garrantzitsuak badira ere, ez dago ikusi besterik nolako garrantzia ematen zaien, tarteka jasotzen ditugun datu soziolinguistikoetan, seme-alabei euskaraz egiten dieten gurasoen ehunekoari. Hitanoari dagokionez ere egin dira halako ikerketak eskala txikiagoan.

Xabier Alberdi Larizgoitiak 80 eta 90eko hamarraldian Euskal Herriko 50 herritan jasotako datuei esker hika egiteko joera eta irizpideak zein izan ohi diren xehe-xehe jakin genuen, eta oraindik ere erreferentzialak dira hark ondorioztatuak.

Alberdik (1993) goitik beherako eta berdinen arteko hitanoaren erabiler bereizi zituen, eta gurasoek seme-alabei hika egitea lehenengo multzoan sartu zuen, noski. Brown eta Gilman-ek (1960) «boterearen semantika» deitu ziotenaren barruan kokatzen du Alberdik (1993); horrela, gurasoak hika zuzenduko litzaizkieke seme-alabei, baina azken horiek zuka emango liekete bueltan gurasoei.

Hartzailearen izaerak ere paper garrantzitsua jokatzeko duela dirudi. La-fitte (1977) esandakoa gogorarazi zigun Alberdik (1993): errazago egingo diote hika gurasoek seme edo alabari berriak, irekia eta jendartekoa bada, kontrako ezaugarriak izanda baino. Gainera, normalean ez omen zaio jaio-tzetik hika egiten umeari; koskortzen direnean, bihurrikeriak egiten hasten direnean, orduan hasten dira maiz gurasoak hika seme-alabekin. Adin zehatzik ez dago horretarako, baina 6-10 urteren bueltan egon liteke Alberdiren (1993) esanetan, edo 6-15 adin-tarte zabalagoan, de Rijk-en (1991) arabera. Ez dago argi zergatik itxoiten diren urte batzuk hika egiten hasi arte, baina ikerketako parte-hartzaileek uste dute umeak hika ari ez daitezkeen egiten dela (Alberdi 1994). De Rijk (1991) bat dator azken argudio horrekin, eta ñabardura hau gehitzen du: batez ere adinekoei hala zuzendu ez dakizkien. Beste hipotesi bat ere planteatzen du: inori hika egiteko elkartasun nolabaiteko bat behar dute igorleak eta hartzaileak, eta urte batzuk pasa arte beharbada ez da beharrezko elkartasun-kodea sortzen guraso eta seme-alaben artean.

Alberdik (1994) ikusi zuen senidetasun mailak eragin zuzena duela hitanoaren erabileran: zenbat eta urrunagoa, orduan eta zailagoa hika egitea. Hala, aiton-amonek eta izeba-osabek ez dute gurasoek bezain erraz egiten hika. Dena den, guraso askok etxeko transmisioa nahita eten omen dute, jende askorentzat hitanoak izan ditzakeen konnotazio negatiboengatik: base-rritarren hizkera, zakarra, gordina, eta abar (Alberdi 1993).

Gure ikerketarentzat erreferente argirik egon bada, bai erabilitako metodologiagatik bai aztertutako herriaren tipologia soziolinguistikoagatik, Xabier Azkuek (2000) Zumaian egindakoa da: hitanoa oraindik erabiltzen den herri bat hartu eta gertatzen direnak sakon aztertu zituen, adin-tarteen arteko ezberdintasunei erreparatuz. Metodologiari dagozkion ñabardurak eta beste alde batzuk albo batera utzita, ezinbesteko erreferentzia da Azkueren lana, ondoren gure ikerketak utzitako datuekin erkatzeko. Azkuek hiru herri-tar-profil aukeratu zituen: baserritarrak, 18-30 urte bitarteko gazte-koadrilak, eta nerabeak. Azken multzo hori interesatzen zaigu hemen bereziki; izan ere, Zumaiaiko bi eskoletako DBH1, DBH2 eta DBH3ko 350 ikasleren datuak jaso zituen galde-sorta bidez (ikasle gehienak bertakoak ziren, batzuk inguruko herrietakoak), eta gaztetxoei eskatu zien gurasoei betearazteko haientzat egokitutako galde-sorta; 305 gurasok erantzun zuten. Galde-sortak alderdi asko ditu, baina transmisioari lotutakoak interesatzen zaizkigunez, 1. taulan laburtu ditugu Zumaiaiko datuak:

1. taula

Parte-hartzaile nerabeek eta haien gurasoek zer tratamendu jaso duten etxean, generoaren arabera bereizita (%)

	Gurasoen belaunaldia			Gazteen belaunaldia		
	Hika	Bietara	Zuka	Hika	Bietara	Zuka
Aitak seme-ari	43	10	47	15	29	55
Amak seme-ari	30	9	61	3	19	78
Aitak alabari	26	5	69	9	20	72
Amak alabari	16	6	77	3	13	84

Iturria: Azkue 2000.

«Gurasoen belaunaldia» izenburupean dauden zutabeek adierazten dute eskolako gazteen gurasoek zer jaso zuten haien gurasoengandik; «gazteen belaunaldia» izenekoek, berriz, eskolako gaztetxo horiei nola egiten dieten haien gurasoek. Beherakada norabide guztietan da nabarmena. Lehen hika egitea ohikoa zen harremanetan asko jo da zuka egitera, eta aurreko belaunaldian hika gutxiago egiten zen kasuetan ia desagertzera jo du tratamendu horrek. Beste datu deigarri bat da gazteenen belaunaldian bai hika bai zuka egiten dutenen kopurua aurreko belaunaldikoa baino askoz handiagoa dela. Azkueren (2000) ustez, kasu askotan oraindik ez da erabat finkatuta egongo gurasoek seme-alabekin erabiltzen duten tratamendua, 12-14 urtekoak baitira parte-hartzaile gehienak. Ñabardurak ñabardura, argi ikusten dena da transmisio-katea gero eta ahulagoa dela, eta gizonezkoek gehiago erabiltzen dutela, batez ere semeekin.

1.2. *Familia, hitanoa eta generoa*

Zumaiako datuetan ikusi berri dugu gizonezkoen artean gehiago erabiltzen dela hitanoa etxeko giroan, eta ehuneko horiek ez dira ez zorizkoak ezta salbuespena ere. Jakina da hitanoak bi forma dituela hartzailearen generoaren arabera: noka egiten zaio emakumezkoari,² eta toka gizonezkoari. Alderdi soziolinguistikoari begiratuta ere badaude aldeak, ordea; hitanoa batez ere gizonen artean erabiltzen dela igar lezake zein nahik behaketa xume baten bidez, eta gaurdaino egindako ikerketek intuitzio hori berretsi baino ez dute egiten. Horren zergatiak zein diren ulertzen ahalegindu dira hainbat autore (ikus Echeverria 2003, Legorburu 2018), baina hipotesi horiek aletzeak luze joko luke eta ikerketa honek ez dio lantegi horri helduko. Atal teorikoa ahalik eta gehien zedarritzeko, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan zentratzen saiatuko gara ahal den neurrian.

Alberdik (1994) ikusi zuen familiaren baitan adina, sexua³ eta ahaidetasun maila direla aldagaririk erabakigarrienak tratamenduaren hautuari begira. Guraso eta seme-alaben kasuan ahaidetasun maila eta adin-desberdintasuna beti antzekoak izanik, generoa litzateke harreman horretan faktore erabakaria.

Arau orokor bezala, genero berekoen artean errazago gertatuko da hika egitea (Alberdi, 1993). Dena den, kasu horietan gizonen artean gehiago entzun ohi da hitanoa emakumeen artean baino. Badirudi Euskal Herriko hainbat lekutan genero-diferentzia erabateko oztopoa dela hika aritzeko, baina norabide bakarrean: gaizki ikusita legoke gizona emakumeari hika zuzentzea. Ez da Azpeitiko kasua, halere, Alberdik (1993) propio zehaztu bezala. Beraz, «zenbait tokitan sexuak eragiten dituen salbuespenekin, gurasoek beren seme-alabei hika egitea gauza normala da» (Alberdi 1993: 438).

Echeverriak (2003) Donostiako eskola bateko gurasoak itaundu zituen, eta generoak erabat determinatzen zuen tratamenduaren erabilera. Hika egiteko ohitura zuten familietan patroia argia zen: aitek semeei hika baina alabei zuka, eta amek seme-alabei zuka.

Familiatik harago begiratuta, genero-arrakalaren berri eman duten ikerketa gehiago ere badaude; besteak beste Soziolinguistika Klusterrak (2016) ondutako ikerketa, zeinak lehen aldiz Azpeitian neurtu baitzuen hitanoaren kale-erabilera. Nahiz eta gurasoen transmisioari buruzko daturik eman ez,

² Dena den, emakumeari ere toka egitea dezente zabaldu da azken urteotan, gazteen artean bereziki (ikus Azkue 2000; edo Ozaita 2014).

³ Alberdik erabilitako jatorrizko 'sexu' terminoa darabilgu hemen, baina aurrerantzean 'genero' terminoa hobetsiko dugu halakoetan.

gure ikerketaren herri berean izanda eta hain lagin handia aintzat hartuta, datu nagusiak hona ekartzea ezinbestekotzat jo dugu. Behatutako 3.282 herritarren artetik % 81,8 ari ziren euskaraz, eta horietatik % 18,1 identifikatu zituzten hitanoa erabiltzen. Generoaren arabera alde handia agertu zen: gizonen % 28,1 ari zen hika, eta emakumeen % 10,6. Hika ari ziren horietatik guztietatik % 45,1 ari ziren toka eta % 17,5 noka (gainerakoek forma neutroak zerabiltzaten). Hika aditu zituzten gizonezkoen ia bi heren toka ari ziren, eta emakumeen ia erdia noka. Azkenik, adinari dagokionez, umeak askoz gutxiago aditu zituzten hika, baina gainerako adin-tarteetan ez dago alde nabarmenik.

Azkuek (2000) Zumaian aztertutakoak ere oso kontuan hartzekoak dira generoari dagokionez. Emakumezko eta gizonezkoen tratamendu-ohituren gaineko ideia gehiago jaso zituen, baina lan honi zuzenean eragiten diotenak aurreko atalean biltzen saiatu gara.

1.3. *Transmisiotik harago: hizkuntza-sozializazioa*

Orain arte hizkuntzaren transmisioaz aritu gara, ezagutzen goitik behe-rako transferentziaz. Hitanoaren bizi-egoera ulertzeko, ordea, funtsezkoa da beste kontzeptu bat: hizkuntza-sozializazioa. 1980ko hamarkadan proposatu zuten AEBetako hainbat autorek, eta Paula Kasaresek ekarri du gure testuingurura 10eko hamarkadan zehar.

Honela definitzen du hizkuntza-sozializazioa Kasaresek (2017: 29): «haurri edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da». Dena den, prozesu hori jarraitua eta amaigabea da, ez da haurtzarora mugatzen; izan ere, jende helduak rol, estatus edota jarduera berrietan sozializatzen segi dezake (Ochs eta Schieffelin 1992). Gainerakoekin harremantzen hasten garenean hasten da, eta bizitza osoan zehar luza daiteke.

Transmisioaren definizio zurrunaren aurrean, hizkuntza-sozializazioak aditzera ematen du gizakiak ez duela hizkuntzekin bizitza osoan zehar berdin jokatu behar, hizkuntzekin duen harremana dinamikoa dela. Are gehiago, gurasoek momentu jakin batean erabaki dezakete hizkuntza batean hitz egitea seme-alabei, baina, hainbat arrazoi direla medio, hautu hori birpentsatu eta moldatzea gerta liteke; alegia, jaiotzen direnean hizkuntza batean hitz egitea, eta handik urte batzuetara aldatzea (Chrisp 2005).

Kasaresen (2015) esanetan, bi transmisio mota bereizi izan dira: naturala, hots, familia-bidezkoa; eta kulturala, formala, eskolan gertatu ohi dena. Dena den, bere ikerketan ondorioztatu zuen bi alderdiok ezin bereizizkoak zirela,

eta hizkuntza-sozializazioak den-denak hartu beharko lituzkeela aintzat (Kasares 2015: 23):

Ettxeko, eskolako nahiz plazako elkarrekintzak, hau da, familiako belaunaldien arteko harremanak nahiz haur belaunkideen artekoak —harreman eszentrikoak deitu ditudanak, erran nahi baita, anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunen eta halako adinkideen artekoak— ez dira hizkuntza jarduera bereiziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira, batera jokatzan dute eta elkarerraginean daude.

Transmisioaren kontzeptuak haurrak pasibotzat jotzen ditu, guraso eta abarrengandik jaso dutenaren hartzaile soil gisa. Hizkuntza-sozializazioak haurren parte-hartzea inplikatzan du, eta aita-amengandik jasotakoaz harandi, paper eragilea joka dezake haurrak bai hizkuntza-ohituretan bai hizkuntzarekiko jarreretan. Beste modu batera esanda, egintzailetasuna edo agentzia ukatu egin izan zaio haurrari, baina haurrek eragiteko daukaten potentzialtasuna ukazina da (Kasares 2017). Haurrek hizkuntza beste haurrengandik ere ikasten dute, eta sarri askotan gurasoen mintzamoldera baino adinkideen artean egiten denera egokitzen dira.

Idea hori hitanoaren eremura ekarrita, Legorburuk (2018) Antzuolan egindako ikerketan ikusi zuen emakumeek hika gero eta gutxiago egin arren, emakume talde txiki bat bere kasa hasi zitzaiola noka elkarri, eta autoreak azpimarratu zuen hizkuntza-ohituretan aldaketa bat eragiteko gai izan zirela, transmisioaren rol erabatekoa ezbaian jarritz.

Kasaresek (2015) *eszentriko* izendatutako harremanak funtsezkoak dira hitanoaren sozializazioa ulertzeko. Ikusi dugu tratamendu hori bizirik dagoen testuinguruetan ohikoa dela gurasoek seme-alabei hika egitea, eta etxea jo dute aditu zenbaitek hitanoaren esparru naturalizat. Beste ideia bat ere azpimarratu izan da, ordea; besteak beste Azkuek (2000) Zumaian ikusi zuten, batzuek gurasoengandik jaso zuten hitanoa, baina, parte-hartzaile askok ez, eta anai-arreba eta adiskideen arteko harremanetatik jaso zuten. Hain zuzen, gizonezko gehienak senide eta lagunekin baino ez ziren hika aritzen. Lehengusuen artean ere erraz erabiltzen zuten hitanoa, urrunekoekin edo adinez nagusiagoak zirenekin izan ezik.

Kasaresek (2017), finean, paradigma-aldaketa bat proposatzen du euskararen ondorengoetaratzea hobeto azaltzeko. Gurean bestela ere gutxi landu den fenomeno, hots, hizkuntzaren transmisioa, beste modu batera ulertu beharko genukeela dio, hizkuntza bat ez baita soilik etxean ikasten, ezta gurasoek erakutsita ere. Transmisioaren kontzeptua zabaldu beharretik dator hizkuntza-sozializazioa delakoa, norabide anitzeko eta bizitzan zehar molda daitezkeen hizkuntza-jabekuntza, -erabilera, eta -jarrerak bere baitan hartzen dituenak.

2. Metodologia

2.1. *Helburua eta ikerketa-galderak*

Azterlan honen helburu nagusia belaunaldi batetik besterako hizkuntzen transmisioan hitanoarekin zer gertatzen den ikustea da. Alde batetik, parte-hartzaileek gurasoengandik jasotzen dutena zer den ikustea; bestetik, guraso diren parte-hartzaileek seme-alabei helarazten dietena zer den ikustea; eta, azkenik, guraso diren parte-hartzaile horien kasuan, aurreko belaunalditik jaso dutenaren eta ondorengoei helarazten dietenaren artean loturarik ba al dagoen ikustea. Helburu nagusi hori betetzeko, hiru ikerketa-galdera mahaigaineratu ditugu. Horietako bakoitza azalduko dugu ondorengo lerroetan.

2.1.1. Zein tratamendu erabiltzen dute parte-hartzaileen gurasoek parte-hartzaileekin?

Galdera honi erantzuteko galde-sorta erantzun duten parte-hartzaile guztien artetik gurasoak dauzkatenak edo gurasoak ezagutu izan dituztenak hartuko dira kontuan. Galdera hau eginda jakin nahi duguna da parte-hartzaileei beren gurasoek (alde batetik amak eta beste aldetik aitak) hika, zuka ala beste hizkuntza batean hitz egiten dieten. Horretarako galdera honen erantzunean parte hartzen duten konbinazio guztiak aztertu dira: parte-hartzailea emakumezkoa izanda amak nola egiten dion eta aitak nola egiten dion, eta parte-hartzailea gizonezkoa izanda beste horrenbeste.

2.1.2. Zein tratamendu erabiltzen dute parte-hartzaileek beren seme-alabekin?

Galdera honi erantzuteko galde-sorta erantzun dutenen artetik seme-alabak dauzkatenak hartu dira kontuan. Aurreko galderan bezalatsu, ikusi nahi duguna da seme-alabak dauzkaten parte-hartzaileek beren seme-alabei hika, zuka ala beste hizkuntza batean hitz egiten dieten. Aurreko galderan bezala, honetan ere egokitu daitezkeen konbinazio posible guztiak hartu dira kontuan: parte-hartzailea emakumezkoa izanda alabari nola egiten dion eta semeari nola egiten dion, eta parte-hartzailea gizonezkoa izanda ere berdin.

2.1.3. Ba al dago harremanik parte-hartzaileek gurasoengandik jasotako hizkuntza-tratamenduaren eta haiek seme-alabekin erabilitakoaren artean?

Kasu honetan galde-sorta erantzun dutenen artetik bi baldintza batera betetzen dituztenak hartu ditugu kontuan: gutxienez gurasoetako bat ezagutu dute-

nak eta gutxienez seme edo alaba bat daukatenak. Galdera honetan, belaunaldi bat ardatz hartu eta bere aurreko belaunalditik jaso duenaren eta ondorengo belaunaldiari helarazi dionaren artean loturarik ba al dagoen ikusi nahi da, berriro ere konbinazio guztiak aintzakotzat hartuta: subjektua alabadun emakumea izanda amak egin dionaren eta hark alabari egin dionaren artean loturarik ba al dagoen, subjektua semedun emakumea izanda amak egin dionaren eta semeari egin dionaren artean loturarik ba al dagoen, eta horrela gurutzaketa posible guztiekin (emakumezkoa/gizonezkoa, ama/aita, alaba/semea).

2.2. *Datu-bilketarako tresnak*

Ikerketa honetako datuak galde-sorta bitartez bildu dira, formatu digital-lean. Galde-sorta galdera itxiz eta irekiz osatuta dago, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki aztertzeko erantzunak bildu asmoz. Baina esku-artearen daukagun lanean zenbait item kuantitatiboen bidez jasotako datuez bakarrik baliatuko gara. Item horietan gurasoen eta seme-alaben arteko hitanoaren erabileraren zein den galdetu da.

2.3. *Parte-hartzaileak*

Ikerketa hau Azpeitian gauzatu da. Gipuzkoako bihotzean kokatuta dagoen herri hau 10.000 biztanletik gorako herrien artean euskal hiztunen ehuneko altuena daukana da. Ikerketa honetarako datuak bildu ziren garaian 14.916 lagun bizi ziren bertan (Eustat 2018) eta azken egindako kale-erabileraren neurketaren arabera herritarren % 81,9 da kalean euskara erabiltzen duena (Soziolinguistika Klusterra, 2016). Euskararen arnagune izateaz gain hitanoaren arnagune ere badela esan liteke (Alberdi 1996, Soziolinguistika Klusterra 2016).

Esku-artearen daukagun azterlana egiteko 18 urtetik gorako herritarren-gana jo dugu (batez besteko adina 39,9 urte eta desbideratze estandarra 13,5). Guztira 838 lagunek emandako erantzunez baliatu gara (% 67,7 emakumezkoak eta % 31,9 gizonezkoak). Hala eta guztiz ere, ikerketa-galdera bakoitzean profil zehatz batzuetako parte-hartzaileen erantzunak behar genituenaz, galdera horietako bakoitzaren emaitzetan parte hartu dutenen kopuruak aldatu egiten dira.

Horrela, lehenengo ikerketa-galderari erantzuna emateko ama edo aita daukaten edo ezagutu izan dituzten parte-hartzaileek esandakoak hartu dira kontuan. Ama ezagutu izan duten parte-hartzaileak 817 dira (% 97,5) eta aita ezagutu izan dutenak 779 (% 93).

Bigarren ikerketa-galderarako, parte-hartzaile guztien artean seme-alabak daukatenek esandakoak aztertu ditugu. Guztira 491 lagunek (% 58,6)

dauzkate seme-alabak; gutxienez alaba bat daukaten parte-hartzaileak 373 (% 44,5) dira eta gutxienez seme bat daukatenak 364 (% 43,4).

Azkenik, hirugarren ikerketa-galderari erantzuteko, seme-alabak eduki eta, gainera, gurasoak ezagutu dituzten parte-hartzaileek emandako erantzunak izan ditugu aztergai. Horretarako kontuan hartu dira profil hauetako parte-hartzaileak: ama eta alaba dauzkatenak, ama eta semea dauzkatenak, aita eta alaba dauzkatenak eta aita eta semea dauzkatenak. Horien guztien kopuru zehatzak eta aurrekoenak batera ikus daitezke 2. taulan:


2. taula

Ikerketa-galdera bakoitzeko erantzunetan parte hartu duten subjektuen kopuruak (n eta %)

Ikerketa-galderak	Profilak	n	%
1	Ama daukatenak	817	97,5
	Aita daukatenak	779	93,0
2	Seme-alabaren bat daukatenak	491	58,6
	Alaba daukatenak	373	44,5
	Semea daukatenak	364	43,4
3	Ama eta alaba dauzkatenak	364	43,4
	Ama eta semea dauzkatenak	357	42,6
	Aita eta alaba dauzkatenak	342	40,8
	Aita eta semea dauzkatenak	338	40,3
	Guztira	838 (♀ = 67,7; ♂ = 31,9)	

Iturria: autoreek sortua.

Emaitzen atalera iritsitakoan, lehenengo bi ikerketa-galderetako emaitzen interpretazioak ulertzeak ez dauka aparteko konplexutasunik, baina hirugarren ikerketa-galderan hiru belaunaldi buruz hitz egingo dugu eta, aurrez gauzak argi utzi ezean, gerta liteke azalpenak nahasgarriak izatea. Lan hori errazte aldera zenbait argibide emango ditugu. Lerro batzuk lehenago esan bezala, hirugarren ikerketa-galderan parte-hartzaileek gurasoengandik jasotakoaren eta seme-alabei emandakoaren arteko lotura aztertuko da. Hiru dira, beraz, horretan parte hartzen duten belaunaldiak. Baina aztertutako erantzunak erdiko belaunaldiarengandik jasotakoak dira. 1. irudian ikus dezakegu hirugarren ikerketa-galderako emaitzetan aipatuko den belaunaldi bakoitzaren baitan zein subjektu dauden:



Iturria: autoreek sortua.

1. irudia

3. ikerketa-galderako emaitzetan aipatuko den belaunaldi bakoitzaren baitan dauden subjektuak

2.4. Datuak bildu eta aztertze prozesua

Esan bezala, datuak galde-sorta bidez jaso ditugu. Galde-sorta formatu digitalean sortu dugu eta jendearen erantzunak lortzeko elur-pilota efektuan oinarritutako laginketa-teknika erabili dugu (Baltar & Brunet 2012). Horretarako Whatsapp, Facebook eta Twitter sare sozialez baliatu gara, batik bat. Jabetzen gara bai erabilitako laginketa-teknikak eta bai aztertu nahi dugun gaiak berak, berekin dakartela lagina alboratua izateko arriskua. Batetik, galde-sorta erantzun duten guztiak euskal hiztunak izan dira; bestetik, agian profil zehatz batzuegandik erantzun gehiago jaso dira. Beraz, emaitzak interpretatzeko orduan kontuan izan behar da alboraketa hori.

Bildutako datuak aztertze hainbat analisi egin ditugu. Lehenengo bi ikerketa-galderen erantzunak aurkitzeko maiztasunak zenbatu eta ehunekoak kalku-


latu ditugu. Hirugarren ikerketa-galderari erantzuteko oinarritzko analisi estatistikoak egin ditugu: aldagaien arteko asoziazioak ezagutzeko, taula gurutzatuak egin ditugu; asoziaziorik ba al dagoen ikusi dugu Pearson-en chi karratuaren (χ^2) bitartez, eta asoziazio horren sendotasuna ikusi dugu Phi balioak (ϕ) kalkulatuta. Analisi horiek egiteko SPSS Statistics 24 programa erabili dugu.

3. Emaitzak

Mahai gainean jarritako hiru ikerketa-galderen erantzunak aurkeztuko ditugu ondorengo orrietan.

3.1. Zein tratamendu erabiltzen dute parte-hartzaileen gurasoek parte-hartzaileekin?

Ikerketa-galdera honen erantzuna 1. grafikoaren bidez erakutsiko dugu:



Iturria: autoreek sortua.

1. grafikoa

Parte-hartzaileen gurasoek parte-hartzaileekin hika, zuka ala beste hizkuntza batean hitz egiten duten (%)

Grafikoan ikus dezakegunez, orokorrean, parte-hartzaileen bai amek eta bai aitek, bai alabei eta bai semeei, zuka gehiago egiten diete⁴; eta gurasoek


⁴ Emaizten interpretazioetan gisa honetako aditzak orainaldian idaztea erabaki dugu. Gerta liteke parte-hartzaile batzuen kasuan gurasoak bizirik ez egotea eta, kasu horietan, jabe-

beste hizkuntza batean hitz egiten dietenak bakanak direla esan daiteke. Grafikoa erakusten dituen emaitzak interpretatzean hitanoan jarriko dugu begia, eta konbinazio posible guztien artean bada bat gainontzekoengandik nabarmentzen dena: parte-hartzaile gizonezkoei aitek egiten dietena (% 38,4 hika). Gainontzeko kasuetan % 20 ingururi egiten diete hika.

Datu orokorretatik harago, grafikoak ematen duen informazioari erpin desberdinetatik begiratuta, interpretazio finagoak egin daitezke. Esate baterako, generoa ardatz hartuta, genero bateko eta besteko parte-hartzaileak bereizita, ikusten da emakumezkoen kasuan amak hika egiten dietenak % 21,7 direla; gizonezkoen kasuan aitak hika egiten dietenak % 38,4 dira, ia bikoitza. Parte-hartzaileen gurasoen ikuspuntutik begiratuta, aitek semeei gehiago egiten diete hika alabei baino (semeei % 38,4k eta alabei % 18,4k); amek berdintsu egiten diete hika batzuei eta besteei (semeei % 22,4k eta alabei % 21,7k).

3.2. Zein tratamendu erabiltzen dute parte-hartzaileek beren seme-alabekin?

Ikerketa-galdera honen erantzuna 2. grafikoa interpretatuta aurkituko dugu:



Iturria: autoreek sortua.

2. grafikoa

Parte-hartzaileek beren seme-alabekin hika, zuka ala beste hizkuntza batean hitz egiten duten (%)

tzen gara aditza lehenaldian idaztea zuzenagoa izango litzatekeela, baina testua arinagoa egite aldera hartu dugu erabaki hori.

Grafiko honek erakusten digunez, aurreko ikerketa-galderako erantzunaren patroi berbera errepikatzen da, baina joerak pixka bat areagotuta. Seme-alabei zuka egiten dieten parte-hartzaileak gehiago dira hika egiten dietenak baino, eta kasu honetan, ez du inork erantzun seme-alabei beste hizkuntza batean egiten dionik. Hemen ere, konbinazio guztien artean nabarmentzen dena parte-hartzaile gizonezkoek semeei egiten dietena da: % 48,5ek egiten diete hika. Gainontzeko kasuetan (parte-hartzaile gizonezkoek alabei eta parte-hartzaile emakumezkoek bai alabei eta bai semeei) % 11,7-17,3 artean dira hika egiten dietenak.

Grafikoak erakusten duenari xeheago erraparatzen badiogu, parte-hartzaileen ikuspuntutik begiratuta bai emakumezkoek eta bai gizonezkoek semei gehiago egiten diete hika alabei baino. Eta parte-hartzaileen alaba eta semeen ikuspuntutik begiratuta, bai alaben eta bai semeen kasuan aitek gehiago egiten diete hika amek baino. Alaben kasuan aiten % 14,7k egiten diete hika eta amen % 11,7k; semeen kasuan aiten %48,5ek egiten diete hika eta amen % 17,3k.

3.3. *Ba al dago harremanik parte-hartzaileek gurasoengandik jasotako hizkuntza-tratamenduaren eta haiek seme-alabekin erabilitakoaren artean?*

Hirugarren ikerketa-galderak aurreko biak lotzea du helburu. Lehenik ikusi dugu zein hizkuntza-tratamendu jaso duten parte-hartzaileek gurasoengandik, eta ondoren parte-hartzaileek nola hitz egin dieten seme-alabei. Bada, lehenengoak bigarrean eraginik ote duen aztertuko dugu segidan. Metodologiaren atalean azaldu bezala, hiru belaunaldi izango ditugu hizpide ondorengo lerroetan: lehenengo belaunaldia (gurasoak eta seme-alabak dauzkaten parte-hartzaileen gurasoak, alegia, bigarren belaunaldiko subjektuen gurasoak), bigarren belaunaldia (erantzunak eman dituzten parte-hartzaileen artetik gurasoak eta seme-alabak dauzkatenak) eta hirugarren belaunaldia (gurasoek eta seme-alabak dauzkaten parte-hartzaileen seme-alabak, alegia, bigarren belaunaldiko subjektuen seme-alabak). 3. taulako zenbakiek erakusten dituzte parte-hartzaileen amen hizkuntza-ohituren araberrako emaitzak; bestela esanda, lehenengo belaunaldiko subjektua emakumezkoa denean zer gertatzen den. 4. taulan, aldiz, lehenengo belaunaldiko subjektua gizonezkoa denean, hark bigarren belaunaldiko subjektuekin erabilitako hizkuntza-tratamenduaren araberrako emaitzak jaso ditugu. Dena den, bi taulak batera aztertuko ditugu ikerketa-galdera honetako joerak azaldu eta erkatzeko.

3. taula

Parte-hartzaileen amek parte-hartzaileei hitz egiteko eta parte-hartzaileek beren seme-alabei hitz egiteko erabilitako tratamenduak (n eta %), bi aldagai horien arteko loturak eta lotura horien sendotasunak

		Zuk alabari				Zuk semeari			
		Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ	Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ
Emakumezkoa	Amak zuri hika	14 (% 23,3)	46 (% 76,7)	,003	,213	21 (% 34,4)	40 (% 65,6)	,000	,263
	Amak zuri zuka	15 (% 8,3)	165 (% 91,7)			23 (% 12,4)	162 (% 87,6)		
	Amak zuri beste	0 (% 0)	11 (% 100)			0 (% 0)	10 (% 100)		
Gizonezkoa	Amak zuri hika	10 (% 33,3)	20 (% 66,7)	,005	,309	18 (% 75)	6 (% 25)	,006	,319
	Amak zuri zuka	7 (% 9)	71 (% 91)			27 (% 37,5)	45 (% 62,5)		
	Amak zuri beste	0 (% 0)	4 (% 100)			2 (% 50)	2 (% 50)		

Iturria: autoreek sortua.

Hirugarren belaunaldiari hika egiteari dagokionez, kopuruak altuagoak dira beti amak edota aitak hika egiten dieten parte-hartzaileen kasuan, zuka egiten dietenen kasuan baino. Alde horiek esanguratsuak diren ala ez jakiteko egin ditugun analisietan zera ikusi dugu: emakumezko parte-hartzaileen kasuan, aitarengandik jasotako hizkuntza-tratamenduak izandako eragina ez da estatistikoki esanguratsua alabei eta semeei hika ala zuka egiten dieten determinatzeko garaian (4. taula). Gainerako kasu guztietan, ordea (emakumezkoek amarengandik jasotakoak eta gizonezkoek bai amarengandik eta bai aitarengandik jasotakoak), eragina du alabei edo semeei hika egiteko joeran, eta aldeak estatistikoki esanguratsuak dira, horietan guztietan asoziazioa ahula izan arren.

4. taula

Parte-hartzaileen aitek parte-hartzaileei hitz egiteko eta parte-hartzaileek beren seme-alabei hitz egiteko erabilitako tratamenduak (n eta %), bi aldagai horien arteko loturak eta lotura horien sendotasunak

		Zuk alabari				Zuk semeari			
		Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ	Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ
Emakumezkoa	Aitak zuri hika	11 (% 20)	44 (% 80)	,103	,139	11 (% 25)	33 (% 75)	,250	,107
	Aitak zuri zuka	16 (% 9,6)	150 (% 90,4)			30 (% 16,3)	154 (% 83,7)		
	Aitak zuri beste	1 (% 7,1)	13 (% 92,9)			1 (% 7,7)	12 (% 92,3)		
Gizonezkoa	Aitak zuri hika	12 (% 27,3)	32 (% 72,7)	,025	,264	23 (% 65,7)	12 (% 34,3)	,012	,303
	Aitak zuri zuka	5 (% 8,9)	51 (% 91,1)			23 (% 39,7)	35 (% 60,3)		
	Aitak zuri beste	0 (% 0)	6 (% 100)			0 (% 0)	3 (% 100)		

Iturria: autoreek sortua.

Fokua lehenengo belaunaldian jarriz gero, ikus dezakegu ama izan ala aita izan hika egiten diena, ondoren parte-hartzaileek seme-alabekin hika egiteko joera ez dela gehiegi aldatzen. Dena dela, amarengandik hitanoa jaso izanak oro har balio altuxeagoak ematen ditu ondoren. Emakumeen kasuan, amarengandik zein aitarengandik jaso hitanoa, % 20-34,4k darabilte seme-alabekin. Gizonen kasuan, esan bezala, hitanoa amarengandik edo aitarengandik jaso izanak ez ditu datuak gehiegi aldatzen, baina ondoren erabat desberdina da gizonak alabari nola egiten dion (% 27,3-33,3k hika) eta semeari zein tratamendurekin zuzentzen zaion (% 65,7-75ek hika).

Hirugarren belaunaldiari begiratzen badiogu, tauletan ikus daitekeen bezala, balio altuenak, hots, hika gehien jaso dutenak, profil honetakoak izan dira: amak hika egin dien gizonezko parte-hartzaileen semeak (bigarren belaunaldi horretakoak diren aiten % 75ek hika egiten die). Kontrako muturrean leudeke amak zuka egin dieten emakumezko parte-hartzaileen alabak (bigarren belaunaldikoak diren amen % 8,3k egiten diete hika beren alabei). Gainera, % 10etik beherako ehuneko ugari aurki ditzakegu hirugarren belaunaldiko emakumeek bai amarengandik bai aitarengandik jaso dutenari erreparatuz gero. Deigarria da, orain arte azaldutako joerak berretsi baino ez egin

arren, kasu guzti-guztietan jaso duela semeak hitanoa sarriago alabak baino (gurasoengandik euskaraz besteko hizkuntza bat jaso duten parte-hartzaile gutxiak alde batera utzita). Gainera, egoera guztietan egin die seme-alabei hika aita gehiago amak baino, kasu batean izan ezik: 4. taulan ikus daitekeenez, lehenengo belaunaldiko gizonezkoak zuka egiten zieten parte-hartzaileen artean, hirugarren belaunaldikoak diren alabei hika egin dieten emakumezkoak (% 9,6) gehiago izan dira alabei hika egin dieten gizonezkoak (% 8,9) baino.

Azkenik, eta gutxiengo txikia izan arren, ikusi dugu parte-hartzaile zenbaitek euskara ez beste hizkuntza bat jaso duela gurasoetakoren batengandik. Azpimarragarria da gutxi horiek hurrengo belaunaldiari zuka ala hika, baina euskaraz egin diotela. Hizkuntza-tratamenduari dagokionez ere emaitzek zailentzarako tarte txikia uzten dute: gurasoengandik beste hizkuntza bat jaso dutenek zuka egiten diete seme-alabei, salbuespenak salbuespen.

Hirugarren ikerketa-galderan datu asko ikusi ditugu, eta aipatu gabe geratu diren beste asko tauletan beha daitezke. Oro har, gurasoengandik hitanoa jaso dutenek errazago egin diete seme-alabei hika, ez dirudi guraso-figura hori ama izan ala aita izan alde handirik dagoenik; eta semei testuinguru posible guztietan egiten zaie gehiago hika alabei baino. Horri lotuta, azpimarratu behar da ikerlan honetan konstante bat izan den faktore batek sortzen duela benetako aldea: generoak. Izan ere, aita gehiago egiten die hika seme-alabei amak baino, semeek maizago jasotzen dute gurasoengandik alabek baino, eta aita eta semearen figurak elkartuz gero ehunekoak nabarmen egiten du gora.

4. Eztabaida eta ondorioak

Lehenengo bi ikerketa-galderak erantzunda gurasoek seme-alabei hika egiten al dieten jakin nahi izan dugu. Alde batetik parte-hartzaileen gurasoek parte-hartzaileei eta, bestetik, parte-hartzaileek beren seme-alabei. Horrekin lotuta, Alberdik (1993) etxea hitanoaren babesgune gisa deskribatu zuen, eta seme-alabei hika egitea ohikotzat jo. Aldi berean, hitanoak gizartean izan zitzakeen konnotazio negatiboak zirela medio, etxean belaunarteko transmisioa nahita eteteko joera ere identifikatu zuen. Azkuek (2000) Zumaian ikusi zuen bi belaunaldiren artean asko egin zuela behera gurasoek seme-alabei hika egiteko ohiturak. Gure emaitzek neurri batean bat egiten dute beste bi lan horiekin, beherantzko joera nabarmena baita. Baina bada salbuespen argi bat: parte-hartzaile gizonezkoen kasuan, beren aitek hika egiten zietela esandakoak (% 38,4) baino gehiago dira berek semei hika egiten dietela esaten dutenak (% 48,5). Hemen aurkeztu ditugun datuekin ezin jakin, dena den, beherakada orokor hori hitanoarekiko iritzi txarrak eragindakoa den, Alberdik (1993) zenbait herritarri entzun bezala, edo beste faktore batzuek eragin duten, emaitza kuantitatiboetara mugatzen baita ikerlan hau.

Aurrez egindako ikerketetan ikusi diren joerak konparatzen ahalegindu gara batik bat. Izan ere, ez luke zentzu handirik izango Alberdiren (1996) ikerketa gurearekin hertsiki erkatzeak, erabat metodologia desberdinaz baliatu baitzen datuak lortzeko. Azkuek (2000), ordea, gurearen antzeko metodoak erabili zituen, eta Zumaian hitanoaren egoera ahulagoa den arren, baliagarri zaigu erreferentzia modura.

Badago Azkueren (2000) eta gure galde-sorten artean aipatzea merezi duen beste desberdintasun bat: guk diseinatutako galde-sortan lau aukera eman genizkien uneoro parte-hartzaileei, senide bakoitzarekin zuten hika egiteko ohituren berri emateko: 'beti hika', 'hika gehiago', 'zuka gehiago' eta 'beti zuka'. Halere, analisiak sinplifikatze aldera bi multzotan sailkatu ditugu erantzunak, ikerketan zehar erakutsi bezala. Azkuek (2000), berriz, hiru aukera eskaini zizkien parte-hartzaileei, tartean 'bietara' aukera gehituta. Datuak aztertzerakoan, gainera, mantendu egin zituen hiru kategoria horiek, atal teorikoan erakutsi bezala. Bi lanak alderatzea pixka bat zailtzen du horrek, baina argi ikusten da 'bietara' erantzun zutenen ehunekoa asko hazten dela gurasoen belaunalditik gaztetxoenera (1. taula). Horren harira ideia interesgarri bat mahaigaineratu zuen Azkuek (2000): litekeena da oraindik gurasoek seme-alabekin tratamendua finkatu ez izana, oraindik nerabeak direla kontuan izanda. Hala ere, horri buruz beste ikertzaile batzuk esandakoak aintzakotzat hartuta (Alberdi 1993, de Rijk 1991), gurasoak seme-alabekin hika egiten hasteko garaia 6-10 eta 6-15 adin-tartean kokatu izan dute. Horren arabera, Azkueren (2000) ikerketako nerabeak Alberdik (1993) proposatutako 6-10 adin-tartetik kanpo eta de Rijk-ek (1991) proposatutako 6-15 adin-tartearen muga-mugan egongo lirateke. Gure susmoa da guraso horiek seme-alabekin erabiltzeko tratamendua dagoeneko ez ote den finkatuta egongo eta horrek honako galdera sorrarazten digu: egon ote liteke beste arrazoirik horren atzean? Hizkuntzak nahasteko joera hedatuta dagoen bezala tratamenduak ere errazago nahas litezke agian, edo hizkuntza-ohitura desegonkorrago baten adierazle izan liteke. Edo beharbada Zumaian hitanoak bizi zuen hauskortasun-egoeraren isla izan liteke, eta, horri lotuta, hitanoaren galeraren tarteke urrats gisa uler dezakegu bi tratamenduak nahastea.

Gure datuek erakutsi digute aita-semeen salbuespenaz gain, gainerakoe-tan argia dela beherakada. Dena den, kontuan hartu behar dugu parte-hartzaileen seme-alabak helduak izan daitezkeela, baina jaioberriak ere bai. Hortaz, litekeena da oraindik tratamendua finkatuta ez izatea, Azkueren (2000) kasuan bezala. Baina ezinbestean beste fenomeno bat ere hartu behar da aintzat: haur txikiei defektuz zuka egiteko tradizioa. Ohitura hori noraino gordetzen den aztertu beharrekoa da, baina litekeena da guraso gazte askok oraindik zuka egitea seme-alabei, eta koxkortu ahala hika egitera pasatzea. Nabardura horrek gure datuek erakutsitako belaunarteko galera leundu lezake, baina hor gertatuko dena luzetarako ikerketa batek baino ez liguke argituko.

Transmisioaren eragina ezin da gutxietsi, gure datuen argitara. Kasu bakanen bat salbu, ikusi dugu gure ikerketako parte-hartzaileek gurasoengandik hitanoa jaso dutenean hurrengo belaunaldira pasatzeko joera handiagoa erakusten dutela, kasu guztiak banan-banan aztertuta ere. Dena dela, transmisioaren ehuneko —oro har apal— horiek ez lukete azalduko Azpeitian, adibidez, gizonezko lagunen artean % 85etik gorak erabiltzea hitanoa, bai gazte, bai heldu, bai edadetu (Muguruza, Bereziartua & Etxeberria 2020). Kasaresek (2015, 2017) euskarara ekarritako hizkuntza-sozializazioaren ideia ezin baliagarriagoa da hitanoaren esparrurako ere: hobeto azalduko luke hitanoaren biziraupena, ahultasunak ahultasun, transmisioaren goitik beherako eta betiereko eskema tradizionalak baino. Gazte gehienek lagun, ikaskide eta abarrekin dituzten harreman eszentriko horietan, eta haiek baino zaharxeagoak direnei entzun eta imitatu nahi horretan bilatu behar da, segur aski, hitanoaren indarguneetako bat.

Aurrez adituek jasotakoak ikusita eta gure emaitzak eskutan, aldagai baten indarra ageri da hitanoaren bultzatzaile edo oztopatzaile nagusi gisa: generoa. Gainera, aldagai horren eragina areagotzen ari dela dirudi, belaunaldien arteko transmisio-patroiak konparatzen baditugu. Azpeitian ikusi dugu semeek beti jasotzen dutela hitanoa alabek baino maizago, eta aitek ia kasu guztietan egiten dutela gehiago amek baino. Aitak semeari nola egiten dion begiratzen badugu, gorakada nabarmena da. Alberdik (1993), Azkuek (2000) eta Echeverriak (2003) ikusitakoen ildo beretik doaz guk bildutakoak. Hala eta guztiz ere, gure ikerketan harreman horietako elementuen arteko konbinazioak banaka aztertu direnez, fenomeno hau xehetasun gehiagoz ezagutzeko abagunea ekarri du eta generoen artean dauden desberdintasunak ikusarazteko balio izan du.

Gizonen artekoek besteko komunikazioan hitanoak Euskal Herriko leku gehienetan behera egin izanak galdera emankorra uzten du zabalik: zergatik? Lehen aipatu bezala, zenbait autore saiatu dira hori aztertzen (Echeverria 2003, Legorburu 2018), eremu akademikotik kanpo ere egin dira ahaleginak galdera horri erantzuteko (Ahotsak Ahozko Ondarea 2019), baina hiztunek eurek horren gainean zer pertzepzio daukaten ezagutu eta modu kualitatiboan ikertzea beharrezko ikusten dugu, eta ahalegin horietan dihardugu guk orain. Horrekin batera, Legorburuk (2018) Antzuolan bertan eta Iruretak (2019) beste zenbait lekutan ikusi dutenaren arabera, loratzen ari dira feminismo-tik emakumeen arteko hitanoa berreskuratzeke saio batzuk, eta horren inpaktuari ere errapartatu beharko zaio datozen urteotan. Beste behin, transmisioak azaldu ezin duen fenomeno da hori, eta zooma urruntzea eskatzen duena.

Horiek eta askoz gehiago beharko ditu hitanoak aurrera egingo badu. Hitanoaren arnagunetzat har genezakeen Azpeitian egindako ikerketa honek erakusten du oraindik han eta hemen darabiltela herritarrek hitanoa, baina sendo segi nahi badu, eta Euskal Herriko beste eremu batzuetara zabaldu, transmisioa indartzeaz gain beste esparru batzuetatik etorri beharko du bul-

tzadak: eskolatik, erakunde publikoetatik, feminisмотik, euskalgintzatik, ikus-entzunezkoetatik... Denak izango dira, segur aski, beharrezkoak. Baina ikerlan honetako gai nagusia esaldi batean laburtzekotan, zera esan beharko genuke, transmisioak ez duela, garrantzitsua izanik ere, gaur egun, tradizioz izan duen besteko pisurik.

Bibliografia

- Ahotsak Ahozko Ondarea, 2019, Ingo xonau!, *Argia*, <<https://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/ingo-xonau>> [Kontsulta: 2020-04-14].
- Alberdi, X., 1993, Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak, *FLV* 64, 425-442.
- , 1994, Hitanoa non eta nork erabiltzen duen, *Euskera* 34, 983-993.
- , 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Azkue, X., 2000, *Hitanoa Zumaian*, Zumaia, Zumaia Udal.
- Baltar, F. & I. Brunet, 2012, Social research 2.0: virtual snowball sampling method using Facebook, *Internet Research* 22.1, 57-74.
- Brown, R. & A. Gilman, 1960, The Pronouns of Power and Solidarity, in T. A. Sebeok (arg.), *Style in Language*, Cambridge, MIT Press, 253-276.
- Chrisp, S. 2005, Māori intergenerational language transmission, *International Journal of Sociology of Language* 172, 149-181.
- de Rijk, R. P. G., 1985, Familiarity or solidarity: The pronoun *hi* in Basque, *RIEV* 36, 373-378.
- Echeverria, B., 2003, Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation, *Language in Society* 32, 383-413.
- Eustat, 2018, Azpeitiko datu estatistikoak: <https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/azpeitia.html>. [Kontsulta: 2020-04-07].
- Irureta, O., 2019, Nokaren galera, *Larrun (Argia)*, <https://www.argia.eus/astekaria/docs/2633/azala/larrun_239.pdf>. [Kontsulta: 2020-04-09].
- Kasares, P., 2015, Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94, 13-45.
- , 2017, Euskararen transmisioa: berrikuspenera hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik, in J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, Bilbo, UEU, 27-51.
- Laffite, P., 1977, Koska eta entterka Heletan, *Euskera* 22, 138-139.
- Legorburu, O., 2018, Genero rolen hitanoaren erabilera izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 109, 111-138.
- Muguruza, B., G. Bereziartua & J. Etxeberria, 2020, Ez da mattetzen erakutsi. Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala, *Uztaro*, moldiztegia.
- Ochs, E. & B. B. Schieffelin, 1992, Language acquisition and socialization. Three developmental stories and their implications, in R. A. Shweder & R. A. LeVine (arg.), *Culture Theory: Essays on Mind, Self and Emotion*, Cambridge, Cambridge University Press, 276-320.
- Ozaita, J., 2014, Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 91, 83-103.
- Soziolinguistika Klusterra, 2016, *Azpeitiako hizkuntza-erabilera eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa. Emaitzen txostena*, Andoain, Soziolinguistika Klusterra.

“[Zuazok] lan eskerga eginez jaso ditu han-hemenka euskararen batasunak oraindik ere beharrezkoak dituen sendabelarrak; eta behar itzela egin du euskalkiak aztertzen, batez ere mugako hizkerak miatzen eta orain arte batu eta arakatu barik zeuden hainbat hizkera-molde ezkutu bistaratzen.” “Lehen eskutik dakit Karrantzatik Baionara, Mauletik pasata, eta Sakanatik bueltan bisitatu dituzun txoko guztietan utzi duzula zure arrastoa eta kariñoa gogoratzen zaituztela.” Hala diote liburu honen aitzinsolasen egile ez nolanahikoek, Eibarko Alkateak eta EHUKo Euskararen arloko errektoreordeak. Ez da aurkezpen makala “Eibarko behargin bat, herriko semea” den batendako.

Koldo Zuazo irakasle-ikertzaileak urteetan Euskal Herriko zoko-bazterretan barrena zorrotz jorratu dituen gaiak ekarri ditugu bere lankide eta lagunok orri hauekara: euskararen historia, euskalki-hizkeren deskribapena eta sailkapena, gazteen euskara, estandarraren eta herri hizkeren arteko harreman ez xbeti erraza, hizkuntza aldakortasuna; hizkuntzaren iragana, oraina eta geroa, funtsean. Koldoren bizkar gainera igorik, kezka horiek eta horiekikoak landu ditugu, esker onez eta jolasean bezala, Eibartik Zuberoara daraman plazerezko bidaia ederrean. Ea bidaide zaitugun, irakurle.